

EKOLOGIAREN IRAUNKORTASUNA ALTERNATIBA FEMINISTAK EHNE

KOKAPENA

Bioaniztasuna ez da soilik fauna, flora, lurra, ura eta ekosistemak, bada ere kulturak, ekoizteko ereduak, giza harremanak eta ekonomikoak, gobernu ereduak...Kultura eta bioaniztasuna elkarrekin garatzen dira beti. Hau dela eta, landarediaren aniztasunak jaten ematen digu eta era berean botikak eskeintzen dizkigu, giza aniztasunak berriz, kultur oparoa.

Gaur egun, globalizazio neoliberalak modu autoritarioan inposatzen da, eredu bakar eta homogeneizagarri bezala. Bitzitzaren oinarri diren ekosistemen degradazioa probokatzen du, bizitza suntsitzen du, bioaniztasuna suntsitzen du eta aniztasun kulturalaren aurka egiten du. Ekoizpen eredu bakar bat eta kontsumo eredu bakar bat inposatzen du. Globalizazioa merkatuen konkista da, ez lurralde eta herriena. Globalizazioa planeta mailako aberastasunaren kontrola eta jabetza da, eta kapitala eta lanaren arteko konpententziaren kontestuan jarduten du. Errealitateak egunero erakusten ditu eredu honen eragin txarrak, eta merkatuen integrazioaren beste aurpegia ere ikustarazten digu, biztanleriaren gehiengoaren bazterketa soziala, ekonomikoa eta politikoa, eta hor alderik txarrena emakumeek jasaten dute.

Baztertzeko ahalmen handia duen globalizazio neoliberalaren eredu honetan, zer nolako genero perspektiba ziurtatu leike, merkatuak emakumea kontsumitzaile edo esku lan merkea bezela baino ez badu ikusten? Merkatuen globalizazioaren gaineratik, herri eta emakumeen elkartasunaren borroka jarri behar dugu.

EUSKAL HERRIAZ

Euskal Herriko klima epela da, ordea bere baitan aniztasuna aurki dezakegu, mendilerroek isurialde bi osatzen baitute, atlantiarra eta mediterraneoarra. Klimaren ezaugarri hau, ur baliabide oparoarekin batera eta gure lurraldeko, kostaldea, lautada, eta mendiarekin lotuta, lur mota ezberdinak sortzen ditu, lurraren erabilpen ezberdina ekartzen du, nekazaritza ekoizpen ezberdinak ahalbideratzen du, ingurune anitza osatzen du,.....eta noski arlo ekonomiko eta sozialean eragin ezberdinak ditu. Hau da, Euskal Herria txikia baina oso anitza da, maila guztietan.

GLOBALIZAZIOA, EUSKAL HERRIKO EMAKUMEAK ETA BIOANIZTASUNA

Edozein herriko ingurugiroaren mantenimenduan, aparteko garrantzia du lurralde antolamenduak eta honetan nekazaritzak duen tokia eta jarraitzen duen eredua, izan ere, Euskal Herriko nekazaritza ere globalizazio prozesuan murgildurik dago.

Nekazaritzaren industrializazioaren eraginez baserriak itxuraz aldatzeaz gain, ekoizteko modua ere aldatzen doa. Produzekzioen kontzentrazioa, intentsifikazioa eta mekanizazioa ematen da, non kapitalak lurra eta lana ordezkatzeko dituen. Ekoizketak espezializatu egin dira eta produkzio bakarreko bidea hartu dute. Eredu honetan kalitatea eta ekoizpena haserre daude eta ingurunearekin zuten oreka kolokan jartzen da. Baina badago oraindik beste eredu bat, ganadu, ortuari eta frutabolaren ekoizpenak ingurune naturalarekin bat egiten duena. Hau da, elikagaiak ekoizteko lurra eta ura bere neurrian erabiliz, ekoizkinen hondarrak lurra ongarrizteko aprobetxatuz, eta modu honetan zikloa itxiz gaur egun kudeaketa iraunkorra deritzoguna gauzatzen da.

Emakume baserriarren gehiengoek ekoizpen industrialetik at lan egiten dute. Baina badira enplegu nitxoak, non emakumeek duintasunaz bizi ahal duten, dibertsifikazioan, maila txikiko eraldaketetan, salmenta zuzenean edo baserrietan jendea bisitan hartuz. Baina zuhur egon beharra dago, ezin baitugu onartu lan konkretu batzuetara relegatuak izana, ez eta nekazaritzaren

errealitate desastrosoa disimulatzeko erabiliak izatea ere, era horretan nekazaritza bikoitzaren arriskua areagotuko bailitzateke.

Baserriko lan banaketan bereziki baina baita gainontzekoetan ere, emakumeari zegozkion eta dagozkion betebeharrak ekologiarekin lotura handia duten, besteak beste honakoaz arduratu izan dira:

- ? Familiaren elikaduraz eta beraz elikagaien kontsumoaz
- ? Bertoko hazien bizi iraunpenaz
- ? Sendabelarren kulturaz
- ? Loreak eta usadioez
- ? Erabilpen luzeaz eta erreziklapenaz
- ? Bioaniztasuna mantentzeaz

" Emakumeen ezaugarria da gauza txikiez, gauza handiak egitea eta horrela egiten dugu emakumeek ekologia, ekonomia, nekazaritza eta gauza guztiekin"

HAZIAK

Gehienbat ortuari dagokienez, emakumeak landara egokienak aukeratzeko ohitura dute, gustua, izurriten aurrean adierazten duten erresistentziagatik, edo ezaugarri jakin bategatik. Emakumeak hazi hori zaindu eta auzokideekin trukatu egiten ditu, bere intereseko beste hazi batzuk lortu nahian. Modu honetan bertoko hazien bizi iraupena orain gutxi arte ziurtatuta egon da, baina azkeneko urte hauetan milaka espezien desagertzeaz hitz egiten da. Gaur egun ilegala da haziak trukitzea eta baita saltzen diren haziak ugaltzea ere, elikadura kate guztia bezela atal honetan ere pribatizazioak multinazional gutxi batzuen eskuetan konzentratzen ditu errekurso genetikoak, lurra eta bere produktuak, natur baliabideak eta ezagutza tradizional patentatuz. Gaitzesten dugu bizitzaren pribatizazio eta merkantilizazioa, konpromisoa behar da lurraren eta itsasoaren mantenimendu eta defentsaren alde borrokatzeko, baita politika sustengarriak eta genero perspektiba orokorra (trasversal) dutenak sortu daitezen.

Egun, haziak erosi egiten dira. Salgai dauden haziak botika etheen interesa dalako, produkzio handien lortzeko hautatuak dira, gainontzeko ezaugarriei jaramonik egiten ez zaielarik, garestiak dira, gehienetan antzuak ere, ongarri asko behar dute eta makalak direnez, produktu kimiko asko erabiltzen da izurritei aurre egiteko, hori bai homogeenoa eta "politak" dira.

Eta hau guztia gutxi ez bazen, orain transgenikoa datorkigu. Laboratorioan egindako hazia, askoz ere garestia dena, naturan dauden anai-arreba basatiak kutsatzen dituen, hazteko are produktu kimiko gehiago behar duena eta gizakiaren osasunean zer nolako eragina izango duen oraindik ez dakigula.

SENDABELARRAK ETA BESTELAKOAK

Euskal Herrian gehien galdu diren landare espezie eta barietateak sendabelarrenak dira. Landare hauen ezaugarri eta erabilgarritasunaren jakinduria emakumeak izan duelarik, gaixotasun ugari osatu, hilerokoa leundu, erditzeak erreztu eta abar luze batez arduratzen zen. Baina badira bestelako belarrak ere emakumeari egotzi zaizkionak, egur sitsarren kontra labanda erabiltzen zuen, erropari usain gozoa emateko albaraka (albahaca) eta meiorana, ukenduak egin, umeen bizioen kontrako belarra etxetik hurbil zaindu, patxarana, urtean zehar janaria izateaz arduratzea...e.a. Izan duen kontserba sistemen jakinduriari esker eboluzioan paper garrantzitsua izan dute emakumeak kontserbazio sistema berriak asmozteko, kimikoek alderatu dituen arte, bere lana gutxietsi eta autoestima jaitsi diotelarik. Gaur eguneko eredu neoliberalak ibilbide luzeak ditu oinarri hortarako energi kontsumo justifikaezina erabiliz eta ezinbestekoa eginez ontziratzeak eta kontserbazio sistema kimika ugariak, produkzioarako beste tratamendu edo gehiago daude kontserbazioan. Jateko orduan menpekotasun handiagoa dugu petrolioarengandik lurrarengandik baino...e.a. Eta aipamen berezia behar du drogen erabilerak, sorginen esku baitzegoen eta garai bateko bizimoduaren adierazlea bazen ere.

Jakinduria ezinbesteko eta zabal hau, emakumez-emakume helerazi eta zabaltzen zen. Jakinduri hau galdu gabe duten herrietan ordea patenteak arrisku bizia suposatzen dute.

Baina, baserrietako ekoizpenen espezializazioa eta ingurunea jasaten ari den sinplifikazioa edo monlaborearen (pinadiak) eraginez, sendabelarren ekosistema murriztu egin da eta egoera honek ekarri du sendabelarren zoritxarra. Sendabelarrekin bezela suertatzen da onddoekin, fauna....

Euskal Herrian ezer galtzen denean, kasu honetan ingurunea eta kulturaz gain, euskara da ere galtzen dena, erabiltzen ez dena galdu egiten baita.

LOREAK ETA USADIOAK

Gure usadio asko "santuekin" lotuta dago, hots San Juan egunean eta uzta ona izateko, emkumeek txorta eder bat eramaten zuten apaizak bedeika zezan. Adibide gisa txorta horrek Aulestin *sobra* izena hartzen du eta Gizaburuagan ordea *kargi*. Baina aipagarriena txorta horren osagai anitza da; San Juan lorea (derrigorrezkoa), trumoi idia loran, zintture belarra, kipula, berakatza, San Juan sagarra, makatza, garia, gerezi eta liriok.

Usadioak badio ere, eguzki lorea atarian eseki ezkerro izpiritu txarrak uxatzen dituela. Bai eta "erramu domekan" ereinotza bedeinkatu behar izatea zoriona izateko. Edo gabon garaian emakumeak, erratza landara frutu gorridunaz, apaingarri gisa jartzea.

Kultura hau nabarmenki desagertzen ari da eta berarekin batera bertoko lore eta landarak mantetzeko premia.

Hain sustraituta izan dugun artoaren kultura ere jasaten ari da globalizazioaren neolibera inposatzen ari den kontsumo eta elikatze isistema, artoaren landaketen jeitsieran duen eraginez aparte talo eta morokil elikagaien desagertzea, intxaur saltsarena....

ERABILERA LUZEA ETA ERREZIKLAPENA

Lehen, dan-dana erabiltzen zen, bererabilera eta erreziklapena jardun normalak zirelarik, erabilpen luzea ematen zitzaien gauzei eta beraz, ia hondakinik ere ez zen sortzen. Atal honetan emakumeak ere izan du berezko garrantzia, adibidez animalia gantzaz egiten zuen xaboiak ez du gaur egunekoaren parekorik, batez ere oraingoak oso kutsakorrak direlako, edo oso arrunta zen umeentzako egiten zituen jolasak, hankapaluak kontserba latekin edo arkuma hezur txikiak egiten zituen aponak.

Argi da kontsumo eta produkzio ereduaren ondorioa dela hondakinaren sorrera eta beronen kantitatea. Saltzekoa konpetitibotzat jotzen diren produkzioen konpetitibitatearen oinarria, produkzioerako laguntza publikoen gehiengoa jasoaz gain, sortzen dituzten kalte ekologikoak eta hauen ondorioak ere gizartearen gain eta diru publikoaren kontura kargatzen baitira, bai osasun alorrean, baita purinen kasuan, baita energi diseinuetan, errepideetan eta abar eta abar.

Gaur egun ordea ez dakigu zer egin, sortzen ditugun hondakin guztiekin eta benetako arazoa eragiten dute, batetik egiten zein desegiten energia asko kontsumitzen delako eta bestetik kutsakorrak direlako.

BIOANIZTASUNA

Emakumearen eginbeharrak zehaztu ditugunean argi utzi nahi izan dugu zuhaitz, landare eta loreen bioaniztasunak bere eguneroko lana gauzatzeko eta mantentzeko zein funtsezkoa izan den.

Ordea, aurreko ataletan aipatu ditugu ekoizpenaren espezializazioa eta ekosistemen sinplifikazioak, espezien desagertzea ekartzen duela baina espezien homogenizazioa ere du bidelagun. Hau da genetikoki alde gutxi dagoen barietate batetako indibiduen artean eta eguraldi edo beste edozein erasoren aurrean denek berdin erantzuten dute, desagertzeko arriskua areagotuz.

Bioaniztasuna, gen, barietate, espezie eta ekosistema mailan, zaindu beharreko altxorra da etorkizuna ziurtatu nahi badugu, natura baita gauza guztien iturburua.

EMAKUMEAREN LAN EREDUA, FUNTSEZKOA

Ez du esan nahi emakumeak bakarrik, ez eta eksklusiboki egin beharreko lana denik, baizik eta emakumeak egiten duguna erabakiorra dela ekologia eta nekazaritzaren sostengarritasunerako, eta borrokarako tresna garrantzitsua dugula, alternatiba ezagutzen dugulako, bizi dugulako.

Aipatutako guztia baserri eta ingurunearen bizi iraupena ziurtatzeko ezinbestekoa izan da. Emakumea gauza txikiez arduratzen zen gauza handiak lortzeko, gaur egun berriz ez zaio garrantzirik ematen lan horri. Argi da hori mantentzea funtsezkoa dela ekosistema eta ekonomia lokalak mantentzeko, argi dagoen bezela lan hori egiten duenak errekonozimendu eta eskubide guztiak bermatuak izan behar dituela.

Nekazaritza eta gizarte eredu suntsitzaille honetan emakume baserritarrak nekez mantendu dezake lan eredu hau, beraz bere lanpostua.

Badira mireztekoak diren beste ardura batzuk emakumearen esku direnak ere, hots familiaren osasuna, elikadura bere ardurapean dagoelako, ordea egungo kontsumo ereduak ez dute halakorik ahalbideratzen.

Emakumea da etxeetako eta auzoetako elikadura sobiranotasunaren ardatza, eta aparteko garrantzia behar du Euskal herriaren elikadura sobiranotasunaren baitan.

Sistema sostengarri batean emakumearen papera eta kultura, gizonarena bezela, ezinbestekoa da beraz emakumearena baztertu ezkeru danok galtzen dugu.

Argi dago sistemak interesaturik bultzatzen duen ezagupen ezak ekonomia neoliberalaren alde jokatzeko duela (el desconocimiento juega a favor de la economía neoliberal). Emakumeon arazoa ez da espezifikoa, globalizazioaren kontrako borrokaren muina baizik.

ELIKADURA SUBIRANOTASUNA, SOSTENGARRITASUNAREN ARDATZ

Ereduak ekoizpen sistemen homogenizazioa eta espezializazioa inposatzen du konpetitu ahal izateko eta berriz ekoizpen aniztasuna baztertuz, elikaduraren subiranotasunaren oinarria izan arren.

Elikadura subiranotasunak lurraldeen kontrol autonomoa onartu behar du, eta baita errekurtsu natural, ekoizpen sistema, nekazal lurren gestioa eta hazien kasuan ere. Tokian tokiko ezagutza eta antolakuntza formak errespetatuz, pertsona guztientzako elikadura osasuntsua bermatu behar du, nekazaritza sostengarriaren printzipioak aplikatu ahal izateko garantia, bioaniztasunaren sostengarritasuna eta kontserbazioaren garantia.

Lekuko ekonomiei lehentasuna zor diegu, non normalean, emakumeak motore nagusia diren.

REVISTA DEL CAMPO

NICARAGUA

25 DE OCTUBRE DE 1990

GUÍA HERBOLARIA PARA LA MUJER

REMEDIOS CASEROS PARA DOLENCIAS FEMENINAS

Por tradición la mujer ha sido la heredera del conocimiento herbolario al ser ella la encargada de alimentar y tratar los malestares de la familia. Es necesario recuperar los remedios tradicionales que usaban nuestras abuelas para tratar las dolencias femeninas.

Menstruación

- *Tensión premenstrual:*

Manzanilla (tónico y antiespasmódica)

Trébol (astringente y antiespasmódica)

Valeriana (sedante)

Azahar (antiespasmódica)

Tila (analgésico y antisudorífica)

- *Cólicos menstruales:*

Lobelia (sedante)

Acaxochitl (tónico digestivo)

Mejorana (digestiva y antiespasmódica)

- *Para aumentar el flujo menstrual y calmar el dolor:*

Perejil (diurético en infusión como en ducha vaginal)

Milenrama (antiespasmódica)

Laurel (vasoconstrictor)

Enebrina (sedante)

Ruda (antiespasmódica)

- *Para regularizar la menstruación:*

Hinojo

Mastuerzo (estimulante nervioso)

Milenrama (antiespasmódica)

Embarazo

- *Para evitar la anemia:*
 - Borraja (astringente y antiespasmódica)
 - Ajo (tónico, remineralizante y antihelmíntico)
 - Alfalfa (tónico, remineralizante)
 - Achicoria (laxante)
 - Centeno (laxante)
- *Para la ictericia:*
 - Ruibarbo (tónico degestivo)
 - Verbena (colagoga)
 - Alcachofa (tónico biliar)
- *Para combatir la acidez estomacal:*
 - Trébol (astringente y antiespasmódica)
 - Borraja (astringente y antiespasmódica)
 - Ortiga (sedante y digestiva)
- *Para fortalecer el útero:*
 - Hojas de frambuesa (tónica)
 - Menta
 - Guayaba (astringente)
- *Para combatir las náuseas:*
 - Hojas de durazno (digestiva)
 - Manzanilla (digestiva y antiespasmódica)
 - Toronjil (digestiva)

Parto

- *Para facilitar el trabajo de parto:*
 - Albahaca (estimulante)
 - Hojas de frambuesa (tónica)
- *Para expulsar la placenta:*
 - Manzanilla (digestiva y antiespasmódica)
 - Albahaca (estimulante)
 - Poleo (diurético y estimulante)

Postparto

- *Para ayudar a recuperar la sangre perdida:*
Alfalfa (tónica y mineralizante)
- *Para desinflar los órganos genitales:*
Llantén (sedante)
Milenrama (antiespasmódica)
Tomillo (desinflamante)
- *Para detener las hemorragias:*
Ortiga (hemostática)
Lactancia
- *Para fortalecer los senos sensibles:*
Consuelda (antiespasmódica)
Gordolobo (antiespasmódica; solo para uso externo)

Menopausia

- *Para atenuar las molestias:*
Cardo santo (tónico y estimulante)
Artemisa (tónico)
Salvia (emoliente y refrescante)
Centeno (tónico)
- *Para combatir el nerviosismo:*
Valeriana (sedante y antiespasmódica)
Toronjil (hipnótica)
Centella (sedante)
- *Para combatir la sensación del ahogo y calor:*
Zarzaparrilla (tónica)
Borraja (antiespasmódica)

Trastornos generales que afectan a la mujer

- *Para el insomnio y el nerviosismo:*
Alhucema (sedante)
Tila (analgésica y sedante)
- *Para combatir el estreñimiento:*
Ruibarbo (digestivo y laxante)

Manzanilla (tónico y antiespasmódico)

- *Infecciones en la vejiga:*

Llantén (diurético)

- *Para combatir las hemorroides:*

Llantén (diurético y estimulante)

- *Para combatir las vaginitis causadas por los hongos:*

Hidrastis (antiséptica)

Manzanilla (antiespasmódica)

Salvia (tónica y emenagoga)

Chaparral (sedante)

- *Enfermedades causadas por tricomonas:*

Ajo (antiséptico; en lavados vaginales, cinco cucharadas de yogurt y un litro de agua tibia)

- *Para prevenir los abortos:*

Hojas de frambuesa (tónica), estas plantas deben utilizarse como agua de uso durante las dos primeras semanas del embarazo ante cualquier amenaza de aborto, y posteriormente sólo en pequeñas cantidades.